



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

Beste erakusketa bat Batzar Nagusietan: Ander Etxanizen eta Luz Estefaniaren “ago-txilci”

- **Zezeil osoan, uriaren erdialdean dagon Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), Bizkaiko Batzar Nagusiek eta UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultadeak aurrera daroen lankidetzarako hitzarmenaren barruan. Sarrerea librea izango da.**

Bilbon, 2017ko zezeilaren 1ean.

Bizkaiko Batzar Nagusiek urte honetako lehenengo erakusketea zabalduko dabe, UPV-EHUko Arte Ederretako Fakultadeagaz aurrera daroen lankidetzarako hitzarmenaren barruan. Ander Etxanizen eta Luz Estefaniaren “ago-txilci” erakusketak Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoa arte moderno beteko dau gaurtik martiaren 3ra arte.

Leioako Campuseko Pintura departamenduko arte harrobi emonkorretik urtendako Etxanizek eta Estefaniak arte-alkarrizketea daukie eta bertan, hogen artelan ingururen bitartez, paisajeagaz erlazonautakoa sentitzeko modu “ia geologikotik” lantzen dabe, tonu gama okreetan, arreetan eta grisetan oinarrituta, batez be. Moltsoak, “paisajea lurra deitu daikegun horretan sakontzen daben barruko ikuspegiak, emozinoak eta distirak nahastetan” dituen ekintzak sortzen ditu.

Joseba Eskubi artista eta Arte Ederretako Fakultadeko pintura irakaslearen berbetan, Anderren pintorea lerroen, planoen eta egituren sare “fina” da, “koadruan barruko erritmoa sortuz eta sentsazioen aldazio-moltsoa eregiz”. Oñatiko artista gaztearen artelanetan, Eskubik “galdera barrietarako” bilakaerea ikusten dau, koadruan “bere burua islatzen dauen pintura-ispilua”, hain zuzen be.

Luz Estefaniaren olio-pinturei jagokenez, “enpastez eta erosinoz egindako mapa baten” bitartez egiten dira. Logroñon jaiotako artistak planoak bultzatzen ditu, alkarren kontra talka egin daien, eta ñabarduraz betetako geografia sortzen dau. Eskubik adierazo dauenez, denporeagaz, Luzen lanak apurka-apurka sinplifikauz joan dira “erabatekoago eta larriago” bilakatuz. Candaudap, bere aldetik, “alderdi telurikoetan, ezkutauta dagonaren distiraren azpian gertatzen dan munduan” eragina daukien lan batzuen sugarretan gelditzen da.

Beste edizino batean, Bizkaiko Batzarrek, uriaren erdialdean bozgorailu librea eskintzearen aldeko apustua egin dabe, Bizkaian prestatutako artisten lana Bizkaiko gizarteari helduazoteko. “Ago-txilci” erakusketea martiaren 3ra arte egongo da zabalik uriaren erdialdean dagon Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura, eta zapatuetan 14:00ak arte. Sarrera librea izango da.

HARTU-EMONETARAKO

Ander Etxaniz (euskalduna) – Tl- 648 806 462

Luz Estefanía – Tl- 636 419 443



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Nueva exposición de jóvenes talentos en Juntas Generales: “ago-txilci”, de Ander Etxaniz y Luz Estefanía

- **Hasta el 3 de marzo en la céntrica Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), y dentro del programa de colaboración que mantienen el parlamento vizcaíno y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. La entrada es libre.**

Bilbao, a 1 de febrero de 2017.

CONTACTOS

Ander Etxaniz (euskaldun) – Tl- 648 806 462

Luz Estefanía – Tl- 636 419 443